

Gipuzkoako Hitza egunkarian argitaratutako artikulu bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Ondorengo testuan zati batzuk falta dira. Hortik kendutakoak hurrengo orrialdean dituzu.

Lapurtutako haurra banaiz?

Lapurtutako haurren tramak ez dauka mugarik, _____0_____. Geroz eta kasu gehiago ari dira argitara ateratzen, eta zaila egiten zait sinestea zenbat jende aberastu zen bere garaian negozio zikin horrekin. Apaizak, mojak, medikuak, erizainak, alkateak... _____1_____?

Apaizek eta mojek, Jaungoikoaren izenean, bidea libre zuten edozertarako; "ez duzu testigantza faltsurik eta gezurrik esango. Ez duzu lapurretarik egingo". Ala! Diru mordoxka baten truke bi mandamentu oso-osorik *porkulo* hartzera! _____2_____, berriz, zer esanik ez; barrua behar da emakume baten errailetatik atera berri duzun haurra gezur zikin batekin estali eta zeure burua aberasteko!

Haurrak lapurtzen zizkieten biktima perfektuak hiru multzotan banatzen ziren. Ama gazteak, batetik; lehendik haur gehiago zituzten emakumeak, bestetik; _____3_____, azkenik. Horrela aberastu ziren urte mordoxka batean munstro horiek, ama gogotsu baten ilusioarekin eta ama zauritu baten ahuleziarekin.

Gai honek ekarri duen anabasaren ondorioz, ametsetan ibili naiz bart gauean; lapurtua izan nintzela amestu dut. *E-mail* baten bidez iritsi zait berria; honela dio: "Aitziber, 1982an, Donostian jaio zinen, eta zure amari hilda jaio zinela esan zioten. Zaldibiako familia batek adoptatu zintuen, beraiek ez daukate lapurreta honen berririk, _____4_____. Hiru milioi pezeta ordaindu zituzten zugatik. Zure ama biologikoa Hernanikoa da, eta zurekin harremanetan jartzeko irrikan dago". Eta orain, zer? Mezuari erantzun diot, esku dardaratiekin teklak zapalduz: "Gustura ezagutuko dut nire ama biologikoa. Gustura akabatuko dut haren besoetatik lapurtu ninduen erizain, apaiz, mediku eta gainerako putakume kuadrilla; baina ez dut sekula nire Joxepiren aldamenetik alde egingo, _____5_____, 29 urtean bere alboan egoteak nire ama bihurtu duelako". Bat-batean izerditan esnatu naiz; amesgaizto bat izan da! Goizeko 06:53 direla esan didate *mesanotxeko* ordulari digitalaren zenbaki gorriek. _____6_____, jaiki egin naiz, ea kafesne batek goxatzen nauen.

Aitziber Garmendia
(Gipuzkoako hitza, 2012-02-17, moldatua)

Egitekoa

Hemen dituzu aurreko testuan tartekatutako beharreko zatiak.

Zati bat sobera dago. 0 adibidea da.

Aukeratu erantzun zuzenak eta idatzi laukietan, adibidean ageri den bezala.

- a. gizakiaren gaiztakeriak mugarik ez duen bezalaxe
- b. adopzio normal bat egin zutelakoan baitaude
- c. Amets txar batek uzten duen tristura ozpin hori sentitu dut sabelaldean
- d. bederatzi hilabeteko haurdunaldian bere barruan egon ez banaiz ere
- e. eta bederatzi hilabete konplitu baino lehen erditu zirenak
- f. Eta mediku zein erizainen kasuan
- g. Hori izan da haien diru iturria: amatasuna
- h. Nola izan daiteke pertsona bat hain ustela

Idatzi erantzunak hemen

0- a	1-	2-	3-	4-	5-	6-
------	----	----	----	----	----	----